




ZURE BIZITZA ETXEKO ANIMALIA BATEKIN
PARTEKATZEKO ASMOA BADUZU,

eraiki ezazu berak behar duen etxea

Berrikusi etxeko animalia baten arduradun gisa dituzun betebeharrak,
bizikidetza sozial egokia ziurtatzeko

INFORMA ZAITEZ

- Zure etxeko animalia **identifikatzeko** derrigortasunari buruz.
- Zure Autonomia Erkidegoan nahitaezkoak diren **txertoei eta tratamenduei** buruz.
- Animaliak **kontrolik gabe ugaltzea** saihesteko modurik onenari buruz.



ERRESPETATU



- Zure bizilagunen komunitateko animaliak edukitzeari buruzko arauak eta zure udalerriko animaliei buruzko **ordenantza**, baita **animalia paseatzeko** arauak eta **bide publikoan** erabili ditzaketen eremuak.
- **Bide-segurtasunari** buruzko araudia, zure animaliarekin autoan zoazenean. **EZ utzi animalia auto barruan bakarrik.**
- Autobusei, metroari edo **beste garraiobide batzuei** buruzko araudia. Hori udalerraren arabera aldatu daiteke.

GOGORATU

- Zure datuak eta animalia baten datu guztiak **erregistroan** eguneratuta edukitzea, eta, baten bat hiltzen bada, jakinarazi ezazu.
- **Jaso BETI bide publikoan** uzten dituen gorotzak.
- Zure etxeko animalia gabe bidaiatzen baduzu, ziurtatu norbaitek zainduko duela edo **eraman ezazu baimendutako egoitza batera.**
- Beste herrialde batera bidaiatzerakoan, eraman zurekin **Europako etxeko animalientzako pasaportea** edo helmugako herrialdeak eskatutako albaitaritza-ziurtagiria. Era berean, informa zaitez herrialde horretara sartzeko eta hartatik itzultzeko dauden betekizunei buruz.

